



Donostian, 2015eko urriaren 23an

## IDAZKARI NAGUSIARI

### KONTROL MOZIOA: UDAL ZERBITZUAK EMATEA

Irabazi Donostiako bozeramaile naizen Amaia Martin Garin honek, Udalbatzaren Araudi Organikoko 98. artikulua oinarri, ondorengo KONTROL MOZIOA AURKEZTEN DUT, Kiroletako eta Gazteriako, Herri Segurtasuneko eta Herri Babeseko zinegotzi ordezkari Martin Ibaberi, Pertsonentzako Zerbitzuetako Batzordean egindako interpelazioaren ondorioz.

### JUSTIFIKAZIOA

Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean hil honetan eginiko interpelazioan salatu genuen zein egoeratan dagoen Herrerako futbol zelaia. Ez dira gutxieneko segurtasun eta osasun baldintzak betetzen. Instalazio horiek egunero erabiltzen dituzten klubek egoera salatu dute: harmailetan barandarik ez; sabai eta hormetan hezetasun eta zartatuak; ate herdoilduak; dutxa osasungaitzak; konketa hautsiak; zabor pilaketa...

Herrerako futbol zelaiko egoerari buruzko txostena aurkeztu zuten Kirol Patronatuko Artezkaritzak urriaren 20an izandako ohiko bilkuran, besteak beste, zelaia zein egora txarrean dagoen azaltzen duela. Txostenean Donostia Kirolak Sporting de Herrera klubari eskatzen zion beharrezko zuzentze neurriak bideratzeko. Harrigarria da txosten horren ondoren eta hainbeste argibide izanda berriro sinatzea kontratua aipatu klubarekin zortzi urterako, Iababe jaunak hedabideetan adierazirik duelarik egitasmo handinahi bat dutela.

Irabazi Donostiakoek udal Gobernuari planteatzen diogu Donostiak Kirolak kudeatzeko berriro elkarrekin orain arte kudeatzen dituzten kirol instalazio guztiak, instalaziook mantentzea behar bezala bermatzearen.

Adibide horrek argiro erakusten du beharrezkoa dela azpikontrataturiko zerbitzu guztiak berriro aztertu behar dituela Udalak, zerbitzu publikoak berriro udal zerbitzu izatea lortuz joateko. Hori dela eta, hauxe da gure



## KONTROL MOZIOA

- 1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal Gobernuari beharrezko erreformak egitea, Herrerako futbol zelaiak egungo kokalekuan irauteko, esaterako, irisgarritasuna, argiak edo instalaziok berak berritzea.
- 2.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal Gobernuari azterlan ekonomiko, finantzario eta juridikoa egitea, Udalak zeharka kudeatzen dituen zerbitzu publiko batzuk udalak zuzenean kudeaturiko zerbitzu berriro izateko aukera ote dagoen aztertzeke.
- 3.- Azterlan horretan honako hauek zehaztuko dituzte: alde batetik, zein den zerbitzu publikoak enpresa publikoen bitartez nahiz udal zerbitzu gisa kudeatzeko formula juridiko bideragarriena; eta, bestetik, zerbitzu horiek zuzenean kudeatzen badira Donostiako Udalak izango duen kostu ekonomikoa, baita aipatutako udal zerbitzu izateak ekarriko dituen lan arloko ondorioak ere. Gainera, zehatz-mehatz zerrendatuko ditu datozen hiru urteotan amaituko diren zerbitzu azpikontratatuak.

Sinatua: Amaia Martin Garin,  
Irabazi Donostia taldearen bozeramailea.